

3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Edozein ekimenetan gertatzen den bezala, gure proiektua aurrera eramateko hainbat sozietateen partaidetza beharko dugu, eta J. ALAI birziklapenean oinarrituta egonda, asko dira hirugarren iturrietatik eskuratu beharreko materialak. Hornitzaileak aukeratzeko prozesuan lortu nahi ditugun emaitzak kontutan izan ditugu, gure baloreak atzean utzi gabe. Izan ere, kit-ak sortzea ez luke ezertarako balio izango bultzatzen ditugun ideiak desagertuko balira.



Baliabideak eskuratzen hasteko, **kamiseta erabiliak** dira lehengaia poltsak sortzeko. Eginkizun honetan CIFP Mendizabala Institutoak laguntzen gaitu. FOL departamentuaren bidez kamiseta bilketa ireki bat egin da zentroan. Hortaz, institutoaz aparte, banakako hornitzaile bolondresen laguntza behar izan dugu.

Mendizabala zentroarekin daukagun aliantza estrategikoa kamiseta berak serigrafiatzeko ere beharrezkoa da. Arte Grafikoen departamentuko makina eta laguntzaileek tableroak poltsetan jartzea posible egiten dute eta elkarlanaren arima pizten dute.

Bestelako materialei dagokienez (makilak, dadoak, errotulkiak...) denda baten edo gehiagoren partaidetza ezinbestekoa da. Iturri hauek bilatzeko prozesuan argi genuen zeintzuk ziren guretzako punturik garrantzitsuenak: gertutasuna eta fidagarritasuna. Multinazional erraldoietatik ihes eginez, Euskadin egoitza duten hornitzaileetara jo dugu.



Ahalik eta leku kopuru txikienetik eskuratu nahi genuen dena, alferrikako kutsadura ekiditzeko materialen garraioan. Honela, **Folder** eta **Juguetilandia** artean banatu genituen gure eskaerak. Gerora beharrezkoa egin zitzaigun beste iturriren batetik eskuratzea haria, eta **Eroskirekin** kontatzea erabaki genuen, Gasteizen presentzia baitu honek ere.

Azkenik, eta gure produktua bezeroak osatzeko pentsatua dagoenez, salmenta ostean eskuratu beharko dituzte azken elementuak. Honetarako bakoitzak bere hornitzaileak aukeratuko ditu tabernen eta gehiagoren artean. Modu honetan, pertsona indibidualen nahi eta beharretara egokituko dira. Azken hauek gabe, ezin izango genuke produktua eskaini.

Gainera, gure negozio-eredua optimizatzeko sare sozialak eta plataforma digitalak erabiltzen ditugu. J. ALAI ezagutzera emateko eta proiektuaren arriskuak murrizteko aukera ematen digute printzipioz diru inbertsiorik egin gabe.


INSTAGRAM:

[@J.ALAI MENDI](#)



TIKTOK:

[@J.ALAI MENDI](#)



WEBGUNEA:

[J.ALAI](#)

